getxoBerri

Getxo bizi ezazu

@GetxoUdala
#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1885 zk.
www.getxo.eus

Urriak 22
>> Azaroak 1

2026

/ Nabarmentzekoak

> Hilerriko ordutegia luzatuko da Santu Guztien Eguna dela eta (2. or.)

> Antzerki eta dantzarekin agurtuko dira Getxo Eszena Arte Eszenikoen Jardunaldiak (3. or.)

> Getxo Saskibaloi Taldearen urteroko aurkezpena Faduran (4. or.)



*Getxo Moda tokiko merkataritzaren, talentu sortuberriaren eta Getxoko proiekzioaren alde (4. or.)

A- GENDA

Liburutegien eguna. Hilak 23, ostirala, udal liburutegietako mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenek liburu bat jasoko dute opari gisa (aleak agortu arte).

Gau Beltz Gaztea Proiektua. Antzerkia. Hilak 31, larunbata, 19:00 eta 22:00 h, Muxikebarrin, "Susto: XXL bertsioa", Maite Guevara konpainiarekin. 12 urtetik gorakoentzat.

Britainia Handiko turismoa, ugariena uda honetan Getxon



Getxoko Turismorako Informazio eta Harrera Zerbitzuak udako denboraldia gorakada batekin itxi du nazioarteko merkatuari dagokionez. Zerbitzura jo duten 18.041 turista eta bisitari globaletatik (%6 gutxiago, 2025arekin alderatuta), %89,94 Lurralde Historikotik kanpokoak izan ziren, eta horietatik %63 atzerriko eta europar batasuneko turismoari zegozkion.

Nazioarteko merkatuaren etorrera (11.417 turista atzerritar) %34 hazi da aurreko urtearen aldean. Aitzitik, Estatuko turismoak %45 egin zuen atzera eta guztizkoaren %26 izatera igaro zen.

Merkatuei dagokienez, Erresuma Batua udako lehena da, itsas bidaien turismoak gora egin duelako. %200etik gorako hazkundearekin, Erresuma Batuko bisitariak 6.000 baino gehiago izan ziren, eta udako turista guztien %35 ekarri zituen. Atzetik, Madrilgo Erkidegoa kokatu zen bigarren, 1.005 turistarekin, eta ondoren Alemania, Frantzia eta Italia.

Hotelen okupazioa

Tokiko ostatuen balantzearen arabera, batez besteko okupazioa %83,6 izan da, eta udako hilabete nagusia abuztua izan da, %88,69ko indizearekin.

- Hotelak: %84,07ko okupazioa izan zuten (jaitsiera txikia izan da, 2025ean baino 3 puntu txikiagoa), eta batez besteko egonaldia 2,31 egunekoa izan zen.

- Ostatuak: 14 puntu gehiago erregistratzen dute, okupazioaren %82,7an kokatzen dira, 2,12 eguneko batez besteko egonaldiarekin.

- Apartamentu turistikoak: zenbakiei eusten diete, batez beste %83,5eko okupazioarekin.

Ostatu-gauen azterketan, Madrildik etorritako pertsonak estatuko turismoaren buru izan ziren, eta, ondoren, Kataluniatik eta Euskaditik etorritakoak. Nazioartean, Frantziatik etorritako turismoa izan zen ostatuetan ugariena, eta ondoren Alemania eta Erresuma Batukoa, nahiz eta AEBetatik, Italiatik, Herbehereetatik, Belgikatik eta Txekiar Errepublikatik ere etorri ziren turistak.

Baliabide turistikoak eta nautikoak

El Abra-Getxo Kirol Portuan, iragaitzazko belaontzien bisitak %11 hazi ziren, guztira 279 itsasontzi eta 744 tripulatzaile iritsi zirelarik.

Bizkaia Zubiak 43.393 turista eta bisitari hartu zituen oinezkoen pasabidean, hau da, %1eko hazkundea izan zuen. Udalerriaren gainerakoarekin bat etorriz, nazioarteko eta europar batasuneko nazioarteko profila guztizkoaren %61eraino igo zen monumentu horretan, Alemania izanik herrialde igorle nagusia.



Alemaniako, Eslobeniako eta Indonesiako taldeak 45. Aste Koralaren protagonistak

Urriaren 29an eta 30ean eta azaroaren 1ean, Getxoko Aste Koralaren 45.edizioa izango da Muxikebarrin. Abestuko duen lehena, hilaren 29an, ostegunean, Ensemble Vocapella Limburg izango da, Alemaniako gizonezkoen ahots-talde entzutetsuenetako bat. Bere programak erromantizismoko errepertorioaren funtsezko obrak eta gaur egungo konposizio teknika handikoak uztartzen ditu. Ostiralean, urriak 30, Chamber Choir Ipavska Esloveniako erreferentziazko abesbatzetako baten txanda izango da, musika-prestakuntza sendoa duten ahots gazteek osatua. Bere errepertorioak musika sakratuaren polifoniatik eta Esloveniako tradizio koraletik gaur egungo sorkuntzara egiten du ibilbidea, herrialdeko konpositoreen lanari arreta berezia eskainiz. Azken emanaldia Saint Angela Choir abesbatzak eskainiko du. Indonesiako ahots gazteek osatutako talde horrek bikaintasun teknikoa, musikaltasun handia eta adierazkortasun aparta uztartzen ditu, musika sakratua, gaur egungo sorkuntza eta bere tradizioaren sustraiak biltzen dituen errepertorioaren bidez. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira eta bakoitzaren sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da (abonua 12 euro).

A-GENDA

URRIAK 22 OSTEGUNA

Literatura-topaketa. 18:00etan, Udal Egoitzan, literatura-topaketa Carmen Torresekin "Después de todo" liburuaren inguruan.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Toponimia ibilbidea. 18:00- 19:30 h, "Portu Zaharra" (euskaraz). Info: Tel: 627 89 93 20, getxo.toponimia@gmail.com Hitzaldia. 19:00etan, "Getxoko eskaintzak: ondare ahaztua" (gazteleraz). Info: Tel: 94 491 08 00 y infoturismo@getxo.eus

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Sidari" (euskaraz), XAKE Produkzioak taldearekin. 12 euro.

URRIAK 23 OSTIRALA

Liburutegien eguna. Mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenek liburu bat jasoko dute opari (agortu arte). Romo, Villamonte eta San Nikolas liburutegietan, zentroen ordutegian.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatu teknikoa. 11:30-12:30 h, "Punta Begoña Galeriak berrirudikatu: obrak direla-eta irekia" (gaztelaniaz). Info: info@puntabegonagetxo.eus / www.ondareabizkaia.eus Bisita gidatua. 19:00etan, "Itsas debozioa: Getxoko eskaintzak" (gazteleraz). Info: Tel: 94 491 08 00 y infoturismo@getxo.eus

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Adriene Bergson-Johnson" (euskaraz), Itzuli konpainiarekin. 8 euro.

URRIAK 24 LARUNBATA

Jardunaldi mikologikoak. Perretxikoak biltzeko irteera Getxo eta ingurutik, 09:00etatik 13:00era. Arratsaldean jasotakoa sailkatuko da Aldai Patronatuan. https://basozaleak.com/

Ingurumen aretoa. 10:30-11:15 eta 12:00-12:45 h, ASTEKLIMA: "Ingurumenaren superheroiak" (8 urtetik gora). Izena emateko doan: info@ingurumenaretoagetxo.eus

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 10:30-13:30 h, "Harea berpizten den lekua: Azkorriko dunak" (gazteleraz). Info: Tel: 688 88 35 96, info@ingurumenaretoagetxo.eus Bisita gidatua. 17:00etan, "Punta Begoña Galeriak eta paisaia mehatxaria" (gazteleraz). Info: info@puntabegonagetxo.eus / www.ondareabizkaia.eus

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, Arpe Diem taldearen emanaldia: Begoña Antruejo eta Leonor Hennequet (arpa), Elena Kopteva (txelo) eta Patxi García Gamilla (tenorea).

Getxo Eszena. Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "No", La Veniderarekin. 8 euro.

URRIAK 25 IGANDEA

Ingurumen aretoa. 10:30-11:15 eta 12:00-12:45 h, ASTEKLIMA: Lankidetza tailerrak "2050. eko Hiria eraiki ezazu" (4 urtetik gora). Izena emateko doan: info@ingurumenaretoagetxo.eus

Jardunaldi mikologikoak. 11:00-14:30, San Nikolas plazan, Erakusketa, dastaketa mikologikoa eta perretxikoak sailkatzeko txapelketa (16 urtetatik beherakoentzat).

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 16:30ean, "Denborari aurka egin: hileta-ondarea eta istorioak" (euskaraz). Info: Tel: 94 491 08 00 y infoturismo@getxo.eus

Getxo Eszena. Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Tretatxu" (euskaraz), Anita Maravillasekin. 8 euro.

URRIAK 27 ASTEARTEA

Hitzaldia. 17:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ley de servicios de atención a la clientela: ¿cuáles son tus derechos?". Hizlaria: Ibone Granell (EKA/ACUVeko abokatua). Antolatzailea: Udala, EKA/ACUVekin lankidetzan.

Jardunaldi mikologikoak. Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Elikadura-segurtasuna, perretxikoren identifikazioa". Hizlaria: Álvaro Chiparozu. Antolatzailea: Basozaleak.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Toponimia ibilbidea. 18:00- 20:00 h, "Areeta" (euskaraz). Info: Tel: 627 89 93 20, getxo.toponimia@gmail.com

URRIAK 28 ASTEAZKENA

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean. Blanca Sarasua obrari buruz (gaztelaniaz).

URRIAK 29 OSTEGUNA

45. Aste Korala. 20:00etan, Muxikebarrin, Ensemble Vocapella Limburg (Alemania). Sarrera: 5 euro (abono, 12 euro).

Poesia errezitaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "25-N. El origen". Rapsoda: Carmen Martínez. Antzezleak: Luisi Landa, Minou Tavárez eta Charo Pérez. Musika: Aitor Ocina. Edukiera mugatua. Antolatzailea: Gizatiar.

Jardunaldi mikologikoak. Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Perretxiko toxikoak. Intoxikazioak". Hizlaria: Roberto Fernández. Antolatzailea: Basozaleak.

URRIAK 30 OSTIRALA

45. Aste Korala. 20:00etan, Muxikebarrin, Chamber Choir Ipavska (Eslovenia). Sarrera: 5 euro (abono, 12 euro).

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Teknologia eta partaidetza-tailerra. 10:00-13:00 h, "Ondarea berpizten: 3D inprimaketa-tailerra" (gaztelaniaz). Info: 653 72 52 59 eta 3dlan@3dlan.org

URRIAK 31 LARUNBATA

Gau Beltz Gaztea Proiektua. Antzerkia. "Susto: XXL bertsioa", Maite Guevara konpainiarekin, 19:00etan eta 22:00etan, Muxikebarrin. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: Muxikebarri eta Romo Kultur Etxean jasotzeko gonbidapenarekin.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 11:00-13:00 h, "Gure burdinazko hondartzak" (gazteleraz). Info: Tel: 666 85 77 61, ekobideak@gmail.com

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30 h, Eskulan jasangarriak: Gau Beltzerako farolatxoak (4 urtetik gora). Izena emateko doan: info@ingurumenaretoagetxo.eus

Kontzertua. 18:00etan, Algortako Kristo Eroslearen parrokian, Tenerifeko La Laguna Unibertsitateko abesbatzaren eskutik. Sarrera doan.

Kontzertua. 19:30ean, Romoko San José Obrero parrokian, Elkarrekin (Berriozar) eta Ondarreta (Getxo) abesbatzen eskutik. Sarrera dohainik.

AZAROAK 1 IGANDEA

45. Aste Korala. 20:00etan, Muxikebarrin, Saint Angela Choir (Indonesia). Sarrera: 5 euro (abonua: 12 euro).

Kontsumoari buruzko hitzaldia RKEn

Udalak, Euskal Kontsumitzaileen Alkartearekin (EKA/ACUV) lankidetzan, informazio-hitzaldi bat antolatu du datorren asteartean, urriaren 27an, 17:00etan, Romo Kultur Etxean. *Bezeroen Arretarako Legea: zein dira zure eskubideak?* izango da gaia, eta bertan Ibone Granell, erakunde horretako abokatua, izango da.

Sarrera doako izango da.

Jardueark Gurarin

Gurari Emakumeen Etxean hiru jarduera izango dira hilabete honen azken astean. Lehena *¿Qué historias guardan nuestras manos?* izenburupeko topaketa izango da, urriaren 27an, asteartean, 18:00etan, Lumaltik Herriak GGKEaren eskutik. Asteazkenean, hilak 28, 18:00etatik aurrera elkarrizketa-mahai bat izango da *Tejiendo el cambio: vidas y resistencia de las mujeres en la máquina textil, en El Salvador* izenburupean, SETEM, Hego Haizea GGKEaren eta El Salbadorreko Mujeres Transformando elkarte feministaren eskutik. *El racismo que el progresismo no quiere abordar* izango da urriaren 29an, 18:30ean hasiko den solasaldiaren titulua, Mugarik Gabe GGKEaren eskutik.



Euskadiko 40 turismo-bulegotako ordezkarik Punta Begoña bisitatu dute

Euskadiko 40 turismo-bulegotako profesionalek Abrako Badia helmuga ezagutu zuten aurreko asteartean, hilak 20, Itourbask Euskadiko Turismo Bulegoen Euskal Sareak, Getxo, Santurtzi eta Portugaleteko udalekin lankidetzan, antolatutako jardunaldi batean. Turismo-sektoreko profesionalek helmugaren aurkezpen ofizial batean eta enklabeetara egindako bisita gidatuetan hartu zuten parte, hala nola Agurtza itsasontzira, Santa Maria Basilikara, Bizkaia Zubira eta Punta Begoñako galerietara. Horietan amaitu zuten jardunaldia eta horrela, zuzeneko informazioa eskuratu ahal izan zuten, Euskadi helmuga aukeratzen duten bisitariei aholkuak emateko.



Bisita María Begoña Zarragari, Getxoko beste ehun urteko bat

Maria Begoña Zarraga Camiruaga bizilagunak 100 urte bete berri ditu. Hori dela eta, Amaia Agirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak aurreko ostegunean, hilaren 15ean, bisitatu zuten egun María Begoña bizi den Algortako etxean. Erandion jaioa, auzokidea 35 bat urtez bizi izan da Getxon. Emakumea alaba baten eta seme baten ama da, eta bost biloba ere eduki ditu. Agintariek ohiko Aixerrotaren oroigarria eta lore sorta bat opatu zizkioten.

Bizilagunekin hitzordua igandean, azaroak 8

Datorren azaroaren 8an, igandean, Bizilagunak kultur artekotasuneko bazkariak izango dira, *Etxean edo txokoan, sareak elikatzen!* lelopean berriro. Ohi bezala, udalerrian, Udalak antolatzen ditu bazkariak, Egizu Getxo Euskaldun elkartearekin eta Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioarekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, besteak beste. Duela urte batzuez geroztik udalerri ugaritan egiten den elkarbizitzaren, aniztasunaren eta kultur artekotasunaren aldeko ekimenak hainbat kultura eta jatorritako familia parte hartzaileak (bertokoa eta beste herrialde batetik etorritakoak) mahai baten inguruan elkartzen ditu otordu bat partekatzeko, etxetan, txokotan eta abarretan. Bazkari bakoitzean pertsona dinamizatzaile bat izango da. Izenemateak: labur.eus/bazkariak loturaren edo 622 433 085 telefono zenbakiaren bitartez.

Hilerriko ordutegia luzatuko da Santu Guztien Eguna dela eta

Datorren igandean, azaroak 1, Domu Santu edo Santu Guztien Eguna izango dela eta, udal-hilerriak bisita-ordutegia luzatuko du eta Udaltzaingoak barrurako sarbidea kontrolatuko du.

Horrela urriaren 26tik, astelehena, hilaren 30era arte, ostirala, ordutegia 07:15etik 20:00etara izango da, etenik gabe. Larunbatean, urriak 31, eta igandean, azaroak 1, ordutegia 08:00etatik 20:00etara izango da. Astelehenean, azaroak 2, ohiko ordutegia izango da berriro, hau da, 09:00etatik 18:00etara.

Udaltzaingoak aparkatzeko lekuak jarriko ditu eta kanpoko zirkulazioa kontrolatuko du. Beharrezkoa izanez gero, norabide bakarreko zirkuitua ezarriko da Bostgarrena kalean.







Antzerki eta dantzarekin agurtuko dira Getxo Eszena Arte Eszenikoen Jardunaldiak

Asteburu honetan amaiera emango zaie urriaren 1etik Muxikebarrin egiten ari diren Getxo Eszena Arte Eszenikoen Jardunaldiei.

Ostiral honetan, urriak 23, 20:00etan, Itzuli Konpainiak ***Adriene Bergson-Johnson*** eszenaratuko du. Maryse Urrutyk idatzi du eta interpretatzen du antzezlana. Obraren ardatza Texasko enpresaburu bat da; euskal kultura "salbatzeko" prest iritsiko da, mundu mailako arrakastarako bere formula ezin hobearekin. *Coaching* kolektiboko *masterclass* zoro honetan, ispilura begiratzera eta gure ohiturak eta ziurtasunak zalantzan jartzera gonbidatzen gaitu. Proposamen lotsagabea, umorez eta ironiaz betea, XXI. mendean euskalduna izateak zer esan nahi duen aztertzeko. Sarrerak 8 euro balio du.

Dantza izango da larunbateko, hilaren 24ko, muntaiaren ardatza, ordu berean eta prezio berdinean. La Venidera taldeak ***No*** ikuskizuna ekarriko du. Zuzendaritza, koreografia eta interpretazioa Irene Tena eta Albert Hernándezenak dira. Biek ala biek, beren unibertso pertsonalenean murgiltzen gaituzte, eta galdetzen digute zer diren eta zerk definitu duen beren bidea azken urteotan. Dantza flamenkoaren ikuspegi bat, 90eko hamarkadaren amaieran jaiotako sortzaile gazte batzuen begietatik, Espainiako eta Flandesko dantzaren marjinak zabaltzearekin liluratuta, beti eboluzio etengabean eta mundu aldakor eta nahasti batekin kontaktuan.

Jardunaldiak igandean, hilaren 25ean, 18:00etan. itxiko dituzte Anita Maravillasek eta ***Tretatxu*** haurrentzako antzerkiak, 7 urtetik gorakoei zuzendua. Lan honek goseak eta bidegabekeriak markatutako haurtzaroaren ondoren bere herriko bidelapurrik miretsiena bihurtzen den mutiko bihurri baten istorioa gerturatuko digu. Txotxongilo-antzezlan honek lapurreta ausartak, ihes ikusgarriak eta abentura zirraragarriak uztartzen ditu, umorea, hunkidura eta samurtasuna konpainiaren berezko estetika zainduarekin eta sentiberatasunarekin bat eginez. Obraren jatorrizko ideia Miren Larrearena da; zuzendaritza, Ivan Alonsorena; txotxongiloen diseinua eta eraikuntza, Valentina Raposorena; zuzendaritza artistikoa eta teknikoa, Ion Chavezena; eta Miren Larrea eta Valentina Raposo izango dira eszenaratzearen arduradunak. Sarreraren prezioa 8 eurokoa da.

Jardunaldiek agur esango dute urrian zehar 17 ikuskizun hartu ondoren.

Badator urteroko hitzordua Mikologi Jardunaldiekin

Aurten ere, eta dagoeneko 36 dira, Basozaleak-Getxoko Elkarte Mikologiko eta Botanikoak antolatutako Mikologiari buruzko Jardunaldiak ospatuko dira gure udalerrian.

Larunbat honetan, hilak 24, hasiko dira espezieak biltzeko irteerarekin. 09:00etatik 13:00etara egingo da irteera. Arratsaldean, berriz, erakundearen egoitzan (Aldai Patronatua) sailkatuko dira espezieak, hurrengo eguneko erakusketa eta dastaketari begira dena prest izateko. Igande horretan, Algortako San Nikolas plazan, 11:00etatik 14:30era, Espezieak Identifikatzeko Lehiaketa egingo da, non 16 urtetik beherakoek parte hartu ahal izango duten.



Hitzaldiak

Aurten, lehenengo hitzaldia asteartean izango da, hilak 27, *Elikagaien segurtasuna, perretxikoen identifikazioa* gaiarekin, Álvaro Chirapozu Mendibil Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Arloko Elikagaien eta Zoonosien Ikuskapen Ataleko buru eta perretxikoen identifikatzailearen eskutik. Bigarrena, ostegunean, hilak 29, Roberto Fernández Sasia mikologo afizionatuaren eskutik etorriko da, eta *Perretxiko toxikoak eta Intoxikazioak* gaiaz mintzatuko da. Bi hitzaldiak Algortako Kultur Etxean (Villamonte) izango dira (gaztelaniaz), 19:30ean.

Informazio gehiago: elkartearen egoitzan (Karitate kalea 1, Algorta), astelehen eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era.
http://www.basozaleak.com



"Titiritari" poema liburu familiarra aurkeztu dute Algortan

Miren Amuriza idazleak, Miren Larrea aktorearekin batera, *Titiritari*, titiriteroen munduari buruzko poema liburu familiarra aurkeztu du aste honetan Algortako Kultur Aretoan, Malen Amenabarren ilustrazio ederrekin. Irakurtzeko, abesteko, jolasteko... ale honek titiriteroen unibertsoa du mintzagai, Anita Maravillas euskal antzerki konpainiaren *Andereño – La Maestra* ikuskizunaren lan-prozesuan oinarrituta. Aurkezpenean, idazleak eta aktoreak (konpainia horretakoa da) lan horri buruz hitz egin zuten, baita literaturari eta antzerkiari buruz, bilaketari eta esperimentazioari buruz, txotxongiloei buruz, hariei buruz, eta gizonezko zein emakumezko titiriteroei buruz ere. Testuek eta ilustrazioek Portal 71ko eta Anita Maravillaseko pertsonek elkarlanean egindako antzerki-ibilbidea dute abiapuntu. Liburua, bai haurrentzat, bai helduentzat, eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratua, 2024ko udaberrian aurkeztu zen, AZ-Alhondiga Bilbaoren *Gutun Zuria* programaren esparruan, eta urte bereko ekainean Mon Llibren (Bartzelona) eta Fuerteventurako Liburu Azokan, besteak beste.

Getxo Modak tokiko merkataritzaren, talentu sortuberriaren eta Getxoko proiekzioaren aldeko apustua egiten du

Getxo Modak 39. edizioa du aurten, hilaren 28an eta 29an, Getxoko merkataritza, euskal diseinua, nazioarteko sorkuntza eta gorantz datorren talentuaren aldeko apustua indartzen duen programazio handituarekin.
Datorren asteazkenean, urriak 28, *La Moda del Futuro ya es Presente* mahai-ingurua egingo da; eta ostegunean, hilak 29, jarraituko du ekitaldiak Getxo Moda Lab-ekin, 13:00etan, eta Getxo Moda 2026 pasarelarekin, 20:00etan, biak Muxikebarrin. Getxo Modak Getxoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa du.



Mahai-ingurua
Hilaren 28ko mahai-ingurua Areetako Getxo Elkartegian egingo da, 15:00etatik 16:30era, eta hainbat arlotako kide bilduko ditu: Assaad Awad, nazioarteko diseinatzailea; Miriam Ocariz, diseinatzaile eta artista; Borja Hernández, Getxoko diseinatzailea; Rodolfo MacCartney, merkataritza, moda eta luxuan aditua; eta Silvia Gallego, estilista eta Kunsthal eskolako irakaslea. Diseinua, berrikuntza, jasangarritasuna, prestakuntza, teknologia eta sormena izango dira elkarrizketaren ardatz nagusiak. Amaieran, publikoak galderak egiteko txanda izango da.

Getxo Moda Lab
Ostegunean, hilaren 29an, 13:00etan, Muxikebarrik Getxo Moda Lab hartuko du, Euskadiko moda-diseinuko talentu berriak bultzatzeko, ikusarazteko eta ezagutarazteko sortutako plataforma. Horrez gain, Basque Biodesign Centerren saio berezi bat izango da. Proiektu horrek diseinua, biologia, teknologia eta jasangarritasuna uztartzen ditu, sormen-aukera berriak esploratzeko.

Pasarela handia
Ostegunean bertan, 29an, baina 20:00etan, Muxikebarrik Getxo Moda 2026ko pasarela handia hartuko du. Getxoko denden proposamenek agertokia partekatuko dute Basque Style diseinatzaileen bilduma batekin eta Assaad Awad artista eta diseinatzaile hispaniar-libanoar gonbidatuarekin. Bere ibilbidea materialekin esperimentatzeagatik, artisau-lana egiteagatik eta sortzeko modu berriak bilatzeagatik bereizten da. Unibertso sortzaile propioa garatu du, eta Lady Gaga eta Madonna bezalako figurekin, Mugler Paris, Hermès eta Balenciaga bezalako enpresekin eta hainbat erakunderekin kolaboratu du.
Ekitaldian zehar, gainera, Bikaintasun Profesionalaren Saria emango zaio Abraham de Amézagari, moda eta luxuan espezializatutako kazetari, idazle eta irakasleari.
Sarrerak: gonbidapen bidez; parte hartzen duten denda zein enpresetan eskuratu ahal izango dira.

KIROLAK

2.800 lagun izan dira udako kirol jardueretan

Udako hilabeteetan Getxo Kirolak-ek antolatutako kirol jardueretan ia 2.800 pertsonak hartu zuten parte.
Fadura eta Gobela kiroldegietan eman ziren ikastaro gehienak haur eta gazteentzat izan ziren, eta 1.078 pertsonak hartu zuten parte. Horietatik 890ek haurren udalekuetan eman zuten izena, eta 188k, berriz, helduentzako ikastaroetan, padel eta entrenamendu funtzionaleko modalitateetan.
Era berean, +60 jarduera fisikoko programek 5.278 inskripzio erregistratu zituzten kostaldeko gimnasia-eskoletan (3.590), aquafit Ereagan (350), Aquagym Faduran (974), kalistenia kostaldean (182) eta yoga kostaldean (182).
Azkenik, 3 eta 16 urte bitarteko 1.669 neska-mutilek parte hartu zuten 21 campusetan, honako kirol hauetan: gimnastika erritmikoa, txirrindularitza, saskibaloia, atletismoa, errugbia, futbola eta emakumezkoen futbola, patinajea, igeriketa, xakea, kirol egokitua, eskubaloia, belar-hockeya eta itsasoko eta abenturako jarduerak.

ARGITZEA

Getxoberri-ren aurreko alean, Jagoba Mardaras getxotarrak *La historia del remo en Algorta* gaiari buruzko testu baten elaborazioari buruzko albiste bat argitaratu zen.
Datuen, dokumentuen, argazkien eta abarren ekarpenak egiteko testuaren bertsio editaezina helbide honetan dago: https://pressbooks.pub/arriluze, eta ez akats baten ondorioz argitaratu zen helbidean, non lerroaren partizio automatikoaren ondorioz tarteko gidoi bat zegoen.



RCMA-RSCko Optimist taldea, bikain

Marítimo del Abra Klubeko José Luis de Ugarte Bela Eskolako Optimist klaseko taldea nabarmendu zen joan den asteburuan Donostiako R. C. Náuticoren Sarian. Martin Guezuraga eta Andrea Criado izan ziren lehena eta bigarrena, hurrenez hurren. Gainera, Adela Penide izan zen emakumezko estropadalaririk onena 13 urtez azpiko kategorian eta Adrian Gainza lehena Optimist 2 klasean.



Getxo Saskibaloi Taldearen urteroko aurkezpena Faduran

Getxo Saskibaloi Taldearen urteroko aurkezpen festa Faduran ospatu zen joan den ostiralean, hilak 16. Kirol erakunde horrek berriro erakutsi zuen Bizkaian eta Euskadin saskibaloiaren erreferentziazko harrobiko klub gisa duen ahalmena. Dagoeneko abiatu den aurtengo denboraldian, klubak 23 talde ditu, emakumezkoak eta gizonezkoak, eta saskibaloi talde inklusibo bat ere badago, Hazsten elkartearekin batera osatua. Duela denboraldi batzuk bizi izan zuen egoera larriaren ondoren birsortutako klubak 270 fitxa ditu guztira. Elkarteak ilusioz beteriko denboraldiari ekingo dio maila guztietan, eta hemen sartzen dira, halaber, 1. Nazionaleko bi taldeentzako desio onak, emakumezkoen taldeak iaz lortutako igoeraren ondoren. Aurkezpena amaitutakoan, familiaren argazkia egin zen jendez gainezka egon zen harmailaren azpian.